

Hedadura: 9'8 Km
Jaiak:

- Herrikoak: Uztailaren 31an, Loiolako Ignazio Deuna.
- Altzo Azpi: Abuztuaren 15ean, Jasokundeko Andra Maria.

Biztanlegoa: 331 biztanle

- San Isidro: Maiatzak 15ean. Baserritarren festa.

Iparaldean Tolosarekin muga egiten duela, ekialdean Lizartzarekin, hegoaldean Amezketa eta mendebaldean Alegiarekin, Altzok bi gune txiki ditu, Altzo-Azpi eta Altzo-Muño, bien historiak hari beretik, elkaturik, aurrera egin duelarik. Gorosabelek dioenez, auzo hauek garai batean independenteak izan ziren, batura gauzatu zeneko garaia ezezaguna zaigularik. Badakigu ordea, oso aspalditik bazutela akordio bat, eta horren arauera urtero, txandaka, bateko nahiz beste alkatea hautatzen zutela.

1374ean parroki-eliza xumea izanik eta Gipuzkoako lurrek -alderdikeriazko borrokek gain hartuta- bizi zuten egoeraren aurrean Tolosa hiribilduari uztartu zitzaion. Batura honen ondorioz Tolosako alkateari zegokion herriaren eta gaizkileen gaineko agintetza, baina bere administrazio ekonomikoari, herrilurren probetxamenduari esa.eutsi zion.

XVII. mendera arte itxoin beharko du, beste udalerrri batzurekin batera, hiribildu titulua jasotzeko, gainbehera zegoen Erret Ogasunari 25.160 erreale ordaindu ondoan.

Ezin izan zuen Probintziako Biltzarretan berak bakarrik ordezkari bat ordaindu, honegatik, 1616az geroztik Bozue Handi Baturako partaide bilakatu zen, bertan Amezketa, Albaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrain barne-sarturik zeudelarik. 1660an Aizpuruako Baturara bildu zen Alegi, Ikaztegieta eta Orendainek osatzen zutena.

Ezinbestekoa da M. Joaquin Elizegi pertsonaia lerro hauetara ekartzea; 1818an jaio eta gaztaroan izandako gaisotasun baten ondorioz neurrigabe hazi zen, 2 metro eta 40 zentimetrotako altuera hartuaz. Altzoko erraldoia, Europako gorteetara ezagutzera ere eramana izan zen.

Donostiako San Telmo museon bere jantziak eta jendaurreko azalpenetarako erabili ohi zuen publizitate ohol bat gordetzen da.

ALTZO AZPI

Altzo-Azpi Ori ibarrean lekutzen da, erreka baten ondoan. Erreka bideari egokitzen zaio, luzezka hedatuaz, eliza inguruan biltzen den etxe-multzak urratzen duelarik tajukera hau.

San Salvador Elizak (30-63) oinplano angeluzuzena eta kanpandorrea ditu. Gurutze-gangez estaliriko nabe bakarra dauka, sakristirako sarrera, gotiko erako arkuak biltzen duela.

Orain 10 bat urte egin ziren egokitze lanetan Eliza erromanikoaren absideko hormak aurkitu zituzten. Horma-aztarnak agerian gorde dira kriptan bat zabalduaz.

Badirudi Olazabalgo Monastegiari dagozkiola; eraikuntza hau 1025ean Ipuzkoako Jaun zen Garcia Aznar eta bere emazte Galga Andreak Haitzetako San Juango benediktarrei eman zieten. Emakidagiriak Gipuzkoako lurraldeko aipamenik zaharrena jasotzen du.

Badira gainera Altzo-Azpin, Olazabalgo gunearekin zerikusirik duten bestelako eraikuntzak. Hala nola, Konde-errota (30-66) -bazter utzita egon arren ondo mantentzen dena- eta Olazabal Aundi baserria (30-64). Hemengo sotoan bada arestian aipaturiko sendiaren jauregiko testigantzarik.

Ingurugune honetan aipatzekoak dira baita ere Errota-txiki (30-65), Konde-errota bezalaxe hau ere bazter-utzia dagoena, eta Ipintxa Haundi baserria (30-67). Baserri honetan jaio zen Altzoko Erraldoia. Egiazio neurriekin egindako eskultura batek pertsonaia honek hartu zuen altuera harrigarria irudikatzen du.



San Salvador eliza.



Udaletxea.

ALTZO MUNO

Auzo hau osatzen duen biztanlegoa sakabanaturik lekutzen da goialde batean, malda txikitako eremuan. Gune honek balio estrategiko handia du, Araxes eta Oriako arroek bat egiten duten tokian lekutzen bait da.

Amezketeta eta Aralarko mailoarekiko ere kokagune polita dauka.



Etxeberri baserria.

HIRIGUNEA

Auzoko gune nagusia Elizaren inguruan biltzen da. Albo-alboan apaize-
txea eta udaletxea ditugu.

- Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-Eliza (30-76)

Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-eliza (30-76) saloi-oinplanokoa da. Nabea gurutze-gangek estaltzen dute eta hauek kapitel gotikodun zutabeetan oinarritzen dira. Portada ere gotikoa da. Albo bateko fatxadari erantsita kanpandorrea du.

- Udaletxea (30-74)

Udaletxea egur eta adreiluzko egitura duen eraikuntza xumea da. Hiru arkutako arkupeak bereizten du hau inguruetakoa gainerako landa eraikuntzetatik.

- Lizarribar (30-77), Otsegi (30-75), Etxeberri (30-73), Iriarte (30-71) eta Arretxe (30-71) baserriak inguruari loturiko landa arkitekturaren adibide bikainak dira. Errepide nagusiaren alde banatan lekutzen dira. Guztietan agerikoa da kanpoko itxiturek duten egurrezko egitura. Iriarte eta Etxeberrian, harlangaitza beharrean adreilua erabili da horma aldeetan. Arretxek sarrera-arkuadu.



Arretxe baserriko beheko sua.

Aizpe (30-78), aurreko saila osatzen duten baserrietatik ez oso urruti, oinplano karratu eta bi altueratako eraikuntza ederra da. Baserri ondoan iturri bat dago, urik ez badario ere oso ikusgarria dena.

Errepideak aurrera egiten du frontoira iritsi arte eta hemendik gertu Santa Barbara (30-68) basiliza dago lekutorik. Basiliza xumea da, neurri txikikoa, kanpandorreak eta atxekitako hilerriak handitasuna ematen diote.

UDALERRIA

Hirigunea, Oria, Amezketeta eta Araxes-tik datozen errepide-sare zabal batekin lotzen da. Errepide hauen goibeheetan herriko hainbat baserri aipagarri lekutzen dira. Jauregik (30-81) erdi-puntuko arku duen portada dauka, giltzarrian J.H.S. anagrama irakur daitekeelarik. Herriko tradizioaren arauera San Salbadorreko Elizan du jatorria.

Zuaznabarreko baserri pareak, Barrenak (30-79) eta Haundik (30-79), tradiziozko arkitektura herrikoia ederki asko azaltzen dute. Hemendik bertan lartza baserria (30-80) ikus daiteke, ertaroko arku zorrotzeko ate politarekin.

Oregi (25-29), Txaramara doan errepide alboan, duen kokaguneagatik da aipagarria, bertatik Naparroarekin lotura-gune den ibartzati zabal bat ikus bait daiteke.

Oiarbide, Legarre eta Goikoetxe ibilgai-luentzako errepide nagusietatik zertxobait urrundurik badaude ere, bisita egitea merezi duten hainbat ezaugarri interesgarri gordetzen dituzte.

Legarren (30-82) ikusgarria da fatxadetako hutsarteak zeinen ondo zaindu diren hauetan badira leiho zorrotzak eta bikoitzak. Fatxada nagusiko zutabeetako tailak er ederrak dira.

Oiarbide (30-83) inguru honetako baserri tipikoa da, ganbara irekikoa. Goikoetxek (39-84) erdi-puntuko bi arkuk osaturiko sarrera-atea du.

Baserri honen azpian, Amezketako ibarrean, oraindik ibiltzen da Altzoko Errota (30-tarteka bada ere).

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

